PDF irisgarria
Irakurketa Errazean

El Murallón Hobia

El Murallón Hobia

Berriobeitin dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Berriobeiti non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua
frankismoaren aurka zeuden
pertsonak espetxeratzeko erabili zuten.

1937ko urtarrilaren 11ean frankistek
San Kristobal Gotorlekuan zeuden
zenbait preso kamioi batean sartu zituzten
hauek Iruñeara eramateko.

Baina frankistak errepidean gelditu,
presoak kamioitik jaitsi
eta hauek bertan hil zituzten.
Preso hauek Murillo el Fruto izeneko
herri batekoak ziren.

Preso hauekin batera
Santakara herriko
beste preso batzuk ere hil zituzten.

Frankistek Murillo el Frutoko presoak hil zituzten
gerran herri horretako frankista bat hil zelako.
Mendeku bezala
pertsona horren senideek
Murillo el Frutoko preso errepublikazaleak
hiltzea exijitu zuten.

Frankistek hil zituzten preso hauek
El Murallón Hobian lurperatu zituzten.

1979ko ekainean senideek
desobiratze goiztiar bat egin zuten
eta gorpuzkiak Murillo el Frutoko hilerrian
lurperatu zituzten berriz.
1979ko ekainaren 17an
senideek hildako preso hauei omenaldi bat egin zieten.

2014ko urriaren 26ean
Ahaztuak 1936-1977 elkarteak
monolito bat jarri zuen hobian
bertan hil zituzten presoak gogorarazteko.

2015. urtean
monolito honek eraso faxista bat jasan zuen,
hau da, frankismoaren alde dauden zenbait pertsonak
monolitoa hondatzen saiatu ziren.

Ahaztuak 1936-1977 elkarteak
eta Berriozarko Udalak
monolitoa konpondu
eta hobi horretan lurperatu zituzten

pertsonen izenak jarri zituzten.
Memoria-Ezkaba Ibilbidearen informazioa duen
panel bat ere jarri zuten.

Hemen monolitoaren argazkia ikus dezakezu:

